

AZKEN HATSA

© Pantxo Hirigarai

Pertsonaiak

(Agertzen diren ordenean)

Geixan

Pedro

Tote

Kulian

Mari

Joana

Terexa

Beronika anderea

Manez

Braulio

Felixa erizaina

Arotzena

Medikua

Seraphin Zelafin

1° AGERRALDIA

(Xahar etxe baten egongelan gira . Paretan emana da “Azken Hatsa” ! Bi emazte ikusten dira kanapean jarririk , Joana katseta irakurtzen ari eta ondoan Mari trikotatzen ari . Terexa ezkerreko mahaian bere argazki albumaren aintzinean lo , aintzin sahets eskuinean , lau gizon mahai ttipi baten inguruan musean ari : Geixan Pedrokekin eta Tote Kulianekin . Erdian , mahai apal bat , katsetak dituela gainean . Musika melankoliko bat entzuten da) .

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Mari . Joana . Terexa

Geixan : Zertan gituk Pedro ?

Pedro : Ttipian , Geixan !

Geixan : Eta nor da esku ?

Pedro : Hi , Geixan !

Geixan : Bost tantoz inbido !

Kulian : Bost gehiago hiri !

Geixan : Hordago !

Tote : Kasu emak , Kulian ! Ez dik Geixan-ek inbido nola nahika egiten ! Badikek zer bait ! Baduka batteko bat , bederen !

Kulian : Batteko bat...Batteko bat ! Ez Tote ! Batteko bat ez diat ez !

Tote : Hau ergela ! Tira Geixan , tira !

Geixan : Hola , hola ! Hau tanto andana !

Kulian : Batteko bat ez diat , ez ! Biga ditiat !

Tote : Ez huena erraiten ahal , ez ? Kanta hire hordagoari , Geixan !

Geixan : Kasu Tote , eh ! Berantegi duk , eh ! *Tira* errana duzue !

Tote : Ah , Kulian ! Hi ere ez hintzala habila sortu !

Kulian : Nork du *tira* erran ? Hik ala nik ? Gizon mekela , hi !

Geixan : Zertan gituk , Pedro ?

Pedro : Paretan , Geixan !

Geixan : Eta nor dela esku ?

Pedro : Hi , erraiteaz geroz ! Jokoa segitzen duka puxka bat !

Geixan : Pareak ba eta bost tantoz inbido !

Kulian : Bost gehiago hiri !

Tote : Kasu emak , Kulian ! Prudentki ar hadi , eh ! Geixan kargatua dukek !

Kulian : Errak , Tote ! Ez ahal dautak hik musean artzen ikasiko !

Geixan : Hordago !

Kulian : Kanta ! (*Kartak erakutsiz*)

Tote : Bainan Kulian ! Bi batteko dituk ! Pare txarrenak !

Kulian : Uste nian gezurra zuela ! (*Beste biak irriz*)

Tote : (*Kartak mahai gainera botatuz*) Ah , Kulian ! Bekatua duk museko kartak hire eskuetan uztea ! Kulian ? Kuian ba ! (*Eta ateratzen da biziki kexu , Kulian-ek segiturik*)

Kulian : Eta hi Tote pitote ! Ez haizela eskapa ! Hik behar duk ene kanari jastatu !

Geixan . Pedro . Mari . Joana . Terexa

Geixan : Zer haurrak ! Hobe die Beronika erizain ero horrek ez ikustea !

Pedro : Jakizak ! Kalapitan harrapatzen baditik , xahu dituk gaizoak !

Joana : Apal ezaxie mintzo hori ! Terexa iratzararaziko duxie ! Erraxie ! (*Bere katseta erakutsiz*) Zergatik behar tixie Labetzeko kikerak karkulatu ? Hau ez dut ongi sesitu !

Pedro : (*Xutitzen da eta Joanaren katseta hartzen*) Bainan , zer kondatzen duzu , Joana !

Joana : Baietz Pedro ! Labetzeko kikerak karkulatu , ba ! So egixu : “Les tasses seront calculees à Labetz” !

Pedro : (*Irakurtzen du*) Gaixo Joana ! Ez duzu “Les tasses seront calculees à Labetz” , bainan “Les taxes seront calcules à la baisse” ! Tatsak apalduko direla , alo !

Joana : Labetzen ? Eta zergatik ez , hemen ! Ai urdeak !

Pedro : Ah Joana , Joana ! Bekatua da katseta bat zure eskuetan uztea !

Joana : Zer gizon gaixtoa egiten duxun ! Geixan ! Xu gixakoa baitxira , erretreta etxe huntako gixakoena , erranen dautaxu : badixit beste zerbait sesitzen ez dutana : (*Katsetan erakutsiz*) Zergatik behar tixie Ortzaizeko untxiak beltzatu ?

Geixan : Nun duzu hori !

Joana : So egixu ! Hemen ixkiratua duxu : (*Irakurtuz*) “Par contre , nous aurons les pots fonces en Osses” !

Geixan : (*So egiten du*) Ez Joana ! Ez duzu “ Nous aurons les pots fonces en Osses” bainan “ Nous aurons l'impot foncier en hausse” ! Lur zegak emendatuko direla , alo !

Joana : Ortzaizen ? Merexi !

Geixan : Ah Joana , Joan ! Burutik jaona ba !

Joana : Kasu emaxu zer erten duxun , eh ! Hau gizon pilda ! Ez duxu xu baino gaixtoagorik erretreta etxe huntan !

Terexa : (*Irartzartzen da eta xutitzen , alde guzietara so*) Xemartin ? Xemartin hor da ? Nun zira Xemartin ?

Pedro : Hara ! Biba zu ! Terexa irazararazi duzu , zure zalapartekin ! Zutaz kontent zirea ?

Terexa : Xemartin jina da gibelerat ? Nun zira Xemartin ?

Pedro : Bon ! Terexa ! Ez zitela berriz has , eh ? Aspertzen gaituzu , azkenean ! Noiz sartuko duzu buruan zure senarra hirutan hogoi urte huntan hila dela !

Terexa : Hila , ba ! Zer kondatzen duzu , gizona ! Ameriketarat joana duzu artzain bi urterentzat eta egune hauetan jitekoa duzu gibelerat , ezkont gaiten ! Errana zautan : “ Terexa , zaude ene beha ! Ameriketarat joanen nuzu sos puxka baten egitera eta bi urteren buruan itzuliko ezkontzeko ! En 1957!”

Pedro : Bainan Terexa 2023 -an gituzu !

Terexa : Berant puxka bat hartu baitu ! (*Bozak entzuten dira kanpotik*) Ixo ! Norbait heldu da ! Xemartin ? Zu zira Xemartin ? Oi , oi ! Bainan ez dut ene ezkont arropa prest ! (*Ateratzen da eskuineko atetik*)

Geixan . Pedro . Mari . Joana

Geixan : Ai ai ai ! Naski Kulian eta Tote Beronikaren aztaparretarat erori diren !

Pedro : Gizon mekanikak dituk bainan ez zuteian hori merexi , halere ! Hobe diagu hemendik partitzea , Geixan !

Geixan : Arrazoin duk Pedro ! Bestenaz bere erasialdien ziliportak guretako izanen baitituk ! (*Ateratzen dira eskuinekaldetik eta Beronika sartuko da erdiko atetik , sekulako furfurian , Kulian eta Tote beharritik tiratzen dituela , Tote arrunt konkortua eta ezpainak ahoan sartuak*)

Mari . Joana . Beronika . Kulian . Tote

Beronika : Ah Kulian eta Tote ! Ez zireztea ahalge , zuen adinean hola joka artzeko ? Ah poliitak zirezte , biak ere !

Joana : Bainan zer duxu hola konkorturik , Tote ?

Beronika : Kana ukaldi fierra eman baitako bizkarretik behera Kulian tzar hunek !

Kulian : Eta ene kana bi parte egin ! Zer pena dutan ! Biziki atxikia nintzan kana horri !

Tote : (*Hortz faltsuak falta zazko*) Ah , hire kanaf urrikaltfen ? Eta ene bifkarra ?

Kulian : Zer afera diat hire bizkarrak nik ? Ni kanak lagunduz ibiltzen nuk ! Ez nuk hik konkolotx karreatzen , dakidanaz ?

Beronika : Kulian ! Zoazi xoko hartarat ! (*Kulian xokora doa*) Eta gaur arratsean Felixi-k egin behar zauzun pikura , nik eginen dautzut !

Kulian : Ah ez , eh ! Nahiago dut zezen baten adar ukaldia hartu ipurdi mazelean , zure pikura baino !

Tote : Merefi ! Merefi !

Joana : Et zer duzu mintzatzeko manera bitxi hori , Tote ?

Beronika : Kulianen kana ukaldian , hortz faltsuak ahotik erori zazko !

Joana : Eta ez dituxia bildu ?

Beronika : Nik ditut sakelan ! Bihar artio konfiskatzen dazkot ! Aski zuen perextuki egoitea !

Tote : Andere Beronika ! Dentierra iful ezaazu berehala , eh ! Beftenaf egiten daufkufun gaiftakeriak falatuko ditut !

Beronika : Zer eginen duzula ?

Tote : Falatuko ba , falatuko !

Beronika : (*Mariren gana doa*) Josta zite , ikusteko ! Eta zu , Mari ? Gurekin zirea ? (*Hunek segitzen du trikotatzen , arraposturik eman gabe*) Oh ! Mari !

Joana : Ez xitu entzuten ! Ahantzia duxia net elkorra dela !

Beronika : Joana ! Norbaitek zerbait galdatu dautzu zuri ? Gaur desertarik ez ! Eta nahi duelarik , entzuten du , ba ! (*Mari-z hurbiltzen da*) Ez dea hala , Mari ?

Mari : Ari ? Ari nuzu ba ! Trikotatzen ari !

Beronika : Mari ! Badakit alegia elkorrena egiten duzula ! Ez da enekin hola jostatzen !

Mari : Josten ? Ez josten ez ! Trikotatzen ! Galtzerdiak trikotatzen ditut heldu den neguko !

Beronika : Zer uste duzu : mundu huntan izanen zirela oraino , heldu den neguan ? Denek prezia ginezake lehenago joaiten bazina !

Mari : Kozina ? Ez dut kozinatzen , ez ! Trikotatzen !

Beronika : Orai aski , Mari ! Hasia gira zure komediari usatzen !

Mari : Lisatzen ? Ez lisatzen , ez ! Trikotatzen ! Elkortua zirea !

Beronika : Bon ! (*Inguruetara so eginez*) Bainan ...Pentsioner batzu falta dira ! Nun dira besteak ? (*Atera doa*) Ho ! Zimurtu andana ! Jin denak hunarat ! (*Beste pentsionerrak sartzen dira , burua apal*)

Mari . Joana . Beronika . Kulian . Tote . Terexa . Geixan . Pedro . Manez

Beronika : Badut berri on bat , zuetarik batentzat ! Zuetarik batek badu familiaren bisita bat !

Xaharrak : (*Denak esperantzaz beterik*) Nik ?

Beronika : (*Irri sadiko batekin*) Ez da egia ! Ez du nehork bisitarik ! (*Xahar guziak tristaturik*) ...Bainan !...Braulio falta da ! (*Oihuka*) Nun zira Braulio ? Jin hunarat ! (*Komunetako uraren azantza entzuten da eta Braulio sartzen da eskuineko atetik*)

Mari . Joana . Beronika . Kulian . Tote . Terexa . Geixan . Pedro . Manez . Braulio

(*Denak okaztatuak dira usainaren gatik*)

Braulio : Gustian kaka egiteko dretxorik ere ez duguia gehiago , etxe huntan ? Ipurdia behar den bezala garbitzeko astirik ere ez dautatzue utzi !

Beronika : Braulio ! Ixil zaitez , gizon okaztagarria ! Beraz ! Baditut bi berri zueri emaiteko ! Bat txarra eta bestea ...

Braulio : Ez hain ona ?

Beronika : Berri ona ! Braulio ! Nahi duzia pikura bat ?

Braulio : Hurbil zite , ikusteko ! Nik ba zuri eginen dautzut ! Gaixtakeriaren kontrakoa ! Zointan nahi duzu ? Eskuineko ala ezkerreko ipurdi mazelean ?

Beronika : Bon ! (*Doinu alegeran*) Berri ona da adixkide bat gehiago ukanen duzuela gaurtik goiti ! Pentsionner berri bat heldu zauku ! (*Doinu tristean*) Beste berria , hemendik banoala ! Uzten zaituztet ! Beste zuzendari bat ukanen duzue , heldu den hilabetetik goiti ! (*Xaharrek ezin dute heien bozkarioa gorde*)

Braulio : Eta zoin da berri txarra ? Bon ! (*Galtzak laxatzen hasiz*) Banoa oxtian finitu ahal izan ez dutana finitzera ! (*Ateratzen da komunitako atera buruz*)

Mari . Joana . Beronika . Kulian . Tote . Terexa . Geixan . Pedro . Manez

Beronika : Bon ! Bisita medikala egina ez dutenek segi nezatela , lerroan eta ixilik !

Geixan : (*Lerroa hasiz*) To ! Braulio faltatu orduko , furfuriak berriz pizten zauzkizu , zuri !

Pedro : (*Lerroa segituz*) Ba ! Eta hari ezin eginak guri jasanarazten !

Beronika : Geixan eta Pedro ! Bisitaren ondotik , zuen ganbaretarat ! Eta han egonen zirezte puni , bihar artio !

Tote : (*Lerroan emanaz*) Fergatik guri mendekatfen fira ? Ez da fufen !

Kulian : (*Lerroa segituz*) Zer dakik hik zuzentasunaz , arrunt konkortua izanki eta ? Hobe hukek hiaur zuzentzea lehenik !

Beronika : Tote eta Kulian , aski da ! Museko kartak konfiskatzen dauzkizuet , bi astez !

Tote : To ! Mufeko kartak kontent ifanen dituk ! Kulianen efkutan direlarik , arrunt galduak baitira , gaifoak !

Kulian : Eta hire eskutan pasatzen direnek ahantzia die ere tanto bat nola egina den !

Joana : (*Lerroan emanaz*) Kulian eta Tote ! Ez txie balio samurtzea ! Eta xuk , Beronika ! Bauxu gaixtotik eh , halere ! Gu sofriarazten loriatzen zira , loriatzen ! Ez da hala , Mari ?

Mari : koloriatzen ? Ez nuzu koloriatzen ari , ez ! Trikotatzen !

Joana : Zu , Terexa : enekin ados zirea ?

Terexa : Segurki , Joana ! Eta ene Xemartin egun hauetan jitekoea baita gibelerat , dena salatuko dakot !

Beronika : Terexa eta Joana , telebixtarik ez , hiru egunez !

Joana : Ah , hori ez , eh ! *Les feux de l'amour*-en gertatzen ari dituxun izigarriekin ! Nik ez dixit huts egin nahi , eh ! Nahi dixit jakin Jessica nola akomeatuko den Johnny-rekin , eh !

Terexa : Zer derasazu , Joana ! Jessica ez duzu Johnny-rekin samurtua bainan Steven-ekin !

Joana : Ez ! Steven Jimmy-rekin duxu samurtua eta Jessica Johnny-rekin ! Jakin baitixi Johnny-k haur bat egin dakola Petula-ri !

Terexa : Bainan Petulak-k haurra Bob-ekin ukana du !

Joana : Alo Terexa ! Bob-ek mutikoak maite txi !

Terexa : Ez ! Hori Mortimer duzu !

Beronika : Ixilduko zireztea ! Mari ! Goazen ! Orai da bisita pasatzea !

Mari : Baratzea ? Ez nuzu baratze egiten ari , ez : trikotatzen !

Beronika : Hau emazte mentsa !

Mari : Jatsa ? Ez nuzu jatsa pasatzen ari , ez ! Trikotatzen !

Beronika : *(Bizlki kexu)* Goazen !

Joana : Terexa ! Eneatzen baxira , leit ezaxu katseta ! Sekulako bitxikeriak pasatzen dituxu Labetzen eta Ortzaizen ! *(Lerroan emanak ziren xaharrak ateratzen dira , Beronikak segiturik)* .

Mari .Terexa . Manez

Terexa : *(Soinu nostalgikoa berriz hasten da , Terexa leihora doa)* Euri ari du kanpoan ! Beti orroituko naiz : Xemartin eta biak ezkondu ginelarik ere , euria jauts ahala ari zen ! Bainan berdin zitzaukun : hain ginen uros ! Gau guzian aizan ginen dantzan , Frantxua zenaren akordeonarekin ! Fandango ta java ! Martzel zena , Jakes zena , Roxali zena ! Zer lagun talde pollita egiten ginuen ! Eta hauen artean , ene lagun minena : Bertta zena ! Zer irriak egin ginituen Pattin zena eta biak lerratu eta lurrera tanpalaala erori zirelarik !

Manez : Bon , Terexa ! Barkamenduekin , hilen lista fini duzia ? Luzaz segituko duzia gure ibiakoitz gris hunen aiosten ?

Terexa : Barkatu Manez ! Xantza duzu , zu airos baitzira !

Manez : Airos ? Ah bai ! Nik airos izaiteko arrazoin guziak ditut : andrea duela bi hilabete galdua , prostatak itsuski sofriarazten , zazpi urte hemen preso naizela eta zazpi urte ez dutala ene semearen bisitarik edo letrarik ukan ! Luffi , zer bozkarioa !

Terexa : Alo Manez ! Bada gu baino gaizkiago denik ! Burua ongi duguno , ez dugu plenitu behar ! Ez dea hala , Mari ? Ez dugu plenitu behar !

Mari : Bihar ! Ez bihar ez ! Egun ! Egun dut trikotatzen ! Bihar ez dut trikotatuko !*(Xutitzen da)* Bihar , ene ehun urteak ospatzen ditut ! Perextuki egoiten banaiz , bixkotxa ukanen dugula hitzeman daut Beronikak ! Agian utziko nau ene aitamen gomitatzerara ! *(Ateratzen da)*

Terexa . Manez

Terexa : Ni , beti orroituko naiz ene hogoigarren urte betetzeaz ! Bazkari bat muntatu zuen ama zenak etxean eta ene lagun guziak gomitatu ginituen : Pile zena , Margarita zena , Maitexa zena , Joanes zena ...

Manez : Ba , ba , Terexa ! Lehenago urte betetzeak ospatzen eta orai egunero Omia Saindu !

(Hiru jende sartzen dira . Jaun medikuak eta Felixi erizainak sustengatzen duten zahar ahuldu bat ,

azantz beldurgarriak jalgitzen zazkola zintzur zolatik)

Terexa . Manez . Felixi . Jaun medikua . Arotzena

Felixi : Egun on , jaun andereak !

Xaharrak : *(Irri pollit batekin)* Egun on Felixi !

Jaun medikua : Egun on , jaun andereak !

Xaharrak : *(Irriak sarturik eta mutur)* Egun on , jaun medikua !

Felixi : Beha ezazue : Adixkide berri bat ukanen duzue gaurtik goiti !

Manez : Are ! Hau falta ginuen gure egunen alegeratzeko !

Terexa : Ez da batere pikoan ! Zer duzue : aleman tzar horien aztaparretarik libratu ? Lehengo lagun bat orhoitarazten daut ! Martzel !

Manez : Martzel nola ?

Terexa : Martzel zena !

Manez : Pentsatzen nuen , ba !

Felixi : Beharko duzue puxka bat lagundu , doi bat flakatua baita !

Jaun medikua : *(Irri zozo batekin)* Puxka bat flakatua ? Errotik teteldua , ba ! Ez da gehiago fitsiketako on ! Zuek bezala , funtsean ! Ikusiak dituzue zuen itxurak ? Beharrik hor nuzue zuen doi bat iraurazteko ! *(Komunetako ura entzuten da eta Braulio sartzen da)*

Terexa . Manez . Felixi . Jaun medikua . Arotzena . Braulio

Braulio : Eta hik ? Ikusia duka hire tipul buru zuria ? Ez dituk , bi diploma txar dituzkalakotz , jendeak hola mespretxatzen , gero !

Jaun medikua : Braulio ! Beharko duzu eni “zuka” mintzatzen ikasi , errespetuz !

Braulio : Hik baitakik zer den errespetua ! Parti hadi hemendik eh , asto zuria hi ! Edo hire ordonantza paper guziak janarazten dauzkihiat !

Jaun medikua : *(Iziturik)* Felixi ! Kalmatzeko pilula emakozu gizon huni ! *(Ateratzen da tarrapatan)*

Terexa . Manez . Felixi . Arotzena . Braulio

Terexa : Zergatik hain beste bisita medikala ? Ez gira eri !

Braulio : Ez zitela kexa , Terexa ! Ontsa balin bazira ere , eritasun zerbait pentsatuko dautzu horrek , zure pensionetik sos puxka baten biltzeko !

Manez : Eta zonbat ez dira medikua ikusi orduko eritu !

Terexa : Ba ba ! Gure ama zena ere medikua ikusi orduko hil zen !

Manez : Zer eritasun atxeman zakon ?

Terexa : Ez ez ! Merkatura zoan oinez eta Etxoineko bihurgunean , bere karroarekin lehertu zuen medikuak ! ...*(Xutitzen da)* Eta ni arrangura nuzu ez dutanez barizela harrapatu ! Adineko

eritasuna , alo ! Behar dut sendatu , ene Xemartin gibelerat jin aintzin ! (*Ateratzen da*)

Manez . Felixi . Arotzena . Braulio

Felixi : Braulio ta Manez ! (*Arotzena erakutsiz*) Beharko duzue gizon au lagundu ! Arrunt ahuldua da , gaixoa !

Braulio : Zertan laguntzen ahal dugu ? Iduri du lurpetik jalia ! (*Arotzenari*) Oh ! Bizi zirea , bederen ? (*Arotzenak auhen itsusi bat botatzen du*) Zer berri beste munduan ? (*Beste auhen bat*) Nola duzu izena ? (*Beste auhen bat*) Hori izen ttipia ! Eta deitura ? (*Beste auhen bat*)

Felixi : Bettiri du izena ! Bettiri Arotzena !

Braulio : To ! Alta izen normala dik ! Gaizo gizona !

Manez : Hunek bederen ez dik sofritzen ! Ez ziaikik zer gertatzen zakon ! Nahi nikek hunen lekuan izan , ahanzteko ez zautala semea zazpi urte huntan ikusterat jin !

Braulio : Eta zergatik ez zauk jin ?

Manez : Omen autoa panan duela !

Braulio : (*Irriz*) Pana larria dukek ! Zazpi urte !

Manez : Banoa bisita medikalara ! (*Ateratzen da*)

Felixi . Arotzena . Braulio

Felixi : (*Hasten da kaxeta untzi baten idekitzen*) Bon ! Bere erremedioa eman behar dakot gaixo huni eta ... (*Erizaina bi gizoneri bizkarrez da eta bat batean , begia pizten zako Arotzenari , eskua Felixiren ipurdi mazelan emaiten du , berehala erretiratzen eta berriz alegia erdi hilarena egiten*) Nork hunkitu daut ipurdia ? Braulio !

Braulio : Alo , Felixi ! Ez ditzazula zure amentsak sala ! Edo zinez nahi baduzu zure ipurdia hunki dezatan , errazu klarki ! Sakrifikatuko naiz !

Felixi : (*Irriz*) Braulio ! Kokina zu ! (*Berriz itzultzen da*) Beraz ! Nun ditut kaxetak , nik ? (*Arotzena-k joko bera egiten du , Braulio ohartu gabe*) ...Braulio ! Orai , aski da !

Braulio : Zer duzu oraino , Felixi ! Ez zaitutala hunki ! Eta jakin ezazu ez dela enbeia faltaz , eh ! Bainan ...Ez ahal da ? (*Arotzena erakutsiz . Hunek beste auhen bat egiten du*)

Felixi : Hau ba ! Gaizoa ! Are , Bettiri ! Hartu kaxeta hau ! (*Hunek auhen bat eta kaxeta iresten du*) Bon ! Ni , banoa ! Braulio ! Zure odol irakitu hori beharko duzu epeldu ! Gizon hau zaint ezazu ! (*Arotzena erakutsiz . Hunek auhen bat eta Felixi ateratzen da*)

Arotzena . Braulio

Braulio : Ah , zer konpainia uzten dautazun ! Milesker Felixi !

Arotzena : (*Xutitzen da*) Zer du ene konpainiak ? Ez zauzia gustatzen ?

Braulio : Eh ? Mintzo baitzira , zu ?

Arotzena : Ni mintzo ? Eta nola !

Braulio : Arrunt uste nuen burutik maingu zinela !

Arotzena : Ez , ez ! Ontsa nuzu , Braulio ! Buruz xuxen nuzu eta gorputzaz sano ! Eta ni beldur ez dituztanez ene gorputzeko parte zorbait sobera sano ere , ene adineko !

Braulio : Eta zergatik erdi hilarena egiten zinuena , beraz ?

Arotzena : Badituzt ene arrazoinak ! Bainan ez du nehork jakin behar eh , pikoan nizala ! Hori gu bien arteko segetua gelditu behar da !

Braulio : Ados , ados ! Zer irriak egin behar ditugun !

Arotzena : Eta jakin ezazu beharko dutela delako Beronika erizain astanak eta mediku harropuz horrek zerbait sofrutu enekin !

Braulio : Aah ! Kontent naiz ! Eta ...Ah ! (*Bere tripa tinkatuz*) Badut prisa gorriko afera bat hantzet trenkatzeko ! (*Komunen atea erakutsiz eta harat doa*)

Arotzena

(Bere soinekoetarik ateratzen du katseta "kokin" bat -publikoak beharko du ikusi hala dela eta mahai apalaren gainean pausatzen du , beste katseten artean , irri eginez . Bozak entzuten dira eta Arotzenak berriz lehengo postura hartzen du , auhenka hasiz . Beronika eta jaun medikua sartzen dira)

Arotzena . Beronika . Jaun medikua

Jaun medikua : Huna gure pentsioner berria ! Beha ezazu zertaratua den ! Nahiko duguna egiten ahalko dugu , hunekin ! (*Arotzen auhenka*) Aberatsa dea ?

Beronika : Oh bai ! Bere dozierra behatu dut ! Ez da familiatua , baditu bi etxe eta sekulako diru meta bankoan ! Ontsa jokatu , zer sosa kendu behar dakogun , triste paketa huni !

Jaun medikua : Beraz , gizon hau bizirik atxiki behar dugu , testamendua gure alde egin behar duela konpreniarazi arte ! Bainan ez zirea zu , heldu den hilabetean hemendik abian ?

Beronika : Bai , bainan espero dut tratua egitean , nitaz orhoituko zirela ! Hobe duzu , funtsean !

Jaun medikua : Bixtan da ! Dudatzen duzia ! Ez duzu ni baino jende zuzenagorik atxemanen ! (*Bat batean arranguratua*) Bainan ...Ez ahal du hunek erraiten duguna sesitzen ! (*Arotzena so eginez*)

Beronika : Ez da irriskurik ! Bere dozierrean emana da buru flakatzeko gradorik larrienean dela ! (*Arotzena-k auhen bat botatazen*)

Jaun medikua : Eta zure segida hemen hartuko duena ? Nolakoa da ?

Beronika : Ez dakit ! Ez dut ezagutzen ! Egun hauetan jitekoa omen da !

Jaun medikua : Agian , zu bezain gixakoa izanen da !

Beronika : Hori zaila izanen da ! ...Ah ! Hain zuzen , aintzinetik , departamenduko zahar etxeen inspektur bat etortzekoa zaku , bihar , etxe hau nola dabilan ikusteko !

Jaun medikua : Ez dugu izitzeko arrazoinik ! Hemen dena xuxen doa !

Beronika : Segurki ! Eta bestalde , goiz huntan abisatua izan naiz lholdiko kontesak nahi lukeela hemen erretiratu !

Jaun medikua : Aah ! Berri ona !

Beronika : Berri ona bainan ez dugu lekurik mementoan ! Beraz behar laike ganbara bat lehen bait lehen bat libratu ! ...(*Doinu maltzurrian*) Konbeni laike gure pentsionerretarik bat bospasei egun barne pausa dadin !

Jaun medikua : (*Berdin maltzur*) Ikusiko dut zer egiten ahal dutan ! (*Arotzena-k auhen bat*) Bon ! Hau behar dut kontsultatu ! *Haur bati bezala mintzatzen da*) Are , jauna ! Goazen kontsultarat ! Zu haatik atsolutoki osagarri onean atxiki behar zaitugu ! ...Mementoan segurrik ! (*Ateratzen dira , medikuak Arotzena besotik atxikiz , hau beti auhenka*)

Beronika

Beronika : (*Bere sakelako telefonoa hartzten du eta zenbaki bat egiten*) Allo ? Iholdiko andere kontesa ? Hemen "Azken hatsa" erretreta etxea ! Badut berri on bat zuretako ! Prestazkizu zure funtsak ! Aste bat gabe jiten ahalko zira gure ganat ! Ganbara bat libratzekotan da !

OIHALA

2° AGERRALDIA

(*Gela berean gira . Xahar gehienak hor dira . Eskuineko mahaian , Geixan , Pedro , Tote eta Kulian musean ari . Terexa , Joana eta Mari kanapean , Terexa lo , argazki albuma altzoan , Joana katseta leitzen , Mari sagar bat kanibetarekin sagar bat xuritzen ari , Manez , ezkerreko mahaian , ez du deus egiten , ageri du triste eta eneatzten dela . Hastapeneko musika bera entzuten da*)

Geixan . Kulian . Tote . Pedro . Joana . Terexa . Mari . Manez

Geixan : Bi tantoz inbido , haundian !

Kulian : Bost gehiago , hiri !

Tote : Emeki , Kulian ! Goazen goxoan ! (*31 -ko keinua egiten dako ? Xutituz , publikoak ere ikusi behar du*)

Kulian : Bake emak , Tote ! Badakiat zer egiten dutan ! Ta zer dituk begi klixka horiek , hik ! Ulitza bat begian sartua ?

Pedro : Kasu emak , Geixan ! Keinua egin dik ! 31 sartua ziaikik Tote-ri !

Tote : Nola egin duk ene keinua ikusteko Pedro ? Alta , diskretuki egin diat ! Eta hi , Kulian ! Ez hiza ixiltzen ahal , ez ?

Geixan : Hordago !

Kulian : Kanta ! Bi batteko ! (*Kartak erakutsiz , kontent*)

Tote : Bainan, Kulian ! Haundiak gituk , ez ttipian !

Kulian : Ah ! Tronpatu nuk ! Arrunt uste nian ttipian ginela ! (*Besteak irriz*)

Geixan : Bi errege , anddere ! (*Kartak erakutsiz eta uros*) Partida irabazi diagu , Pedro !

Pedro : Biba hi , Geixan !

Tote : *(Kexu)* Zer kuia lilia egiten dukan , Kulian !

Kulian : Ba , ta hi petenta ! Petenta ederra !

Terexa : *(Bat batean , iratzartzen eta xutitzen da)* Xemartin ? Xemarin itzuli da ?

Joana : Zer kondatzen duxu , Terexa !

Terexa : Lotarik entzun dut norbait “kuia lilia” erraiten eta Xemartinek konplimendu hori egiten zautan , ardura !

Tote : Berriz lokart zite , Terexa ! Eta hik , Kulian , utzak musa ! Joko hori ez duk hiretako egina ! Ar hadi , ez dakiat nik , batailan edo “*jeu de 7 familles*”-etan nahi baduk , bainan utzak musa ! *(Geixan eta Pedro irriz)*

Kulian : Ba ! Ta hi ipurdi zikinean !

Geixan : *(Irriz)* Ez ! Hori Braulioaren jokoa duk ! Komditatetan duk oraino ! *(Komunen atea erakutsiz)*

Pedro : *(Irriz)* Braulio egun guzia geldia ari duk ipurdi zikinean !

Tote : Dena den , Kulian ! Partida hau azkena zian ! Ez nuk gehiago hirekin musean ariko !

Joana : *(Katseta leitzen ari)* Erraxie ! Bada hemen zerbait ontsa sesitzen ez dutana : zergatik gatza nahi dixi Bunuzeko jendeak ?

Manez : *(Bere mahaitik xutitzen da Joanaren katseta leitzera joaiteko)* Erakutsazu !

Joana : So egixu , Manez ! Hemen emana dixie “*Bonus pour les sales*” !

Manez : Bah ! Ez duzu “*Bonus pour les sales*” , bainan “*Bonus pour les salaires*” ! Hilabetesariak emendatuko direla , alo !

Joana : Bunuzen ? Eta zergatik ez hemen ? Ai , urdeak ! Hori ez txu xuxen , eh !

Manez : Booh ! Utzazu katseta hori eta konprenitzen duzuna , har !

Joana : Herria katseta hartuko dixit ! *(Xutitzen da mahai apalaren miazteko . Arotzenak utzi aldizkari kokina hartzen du . Publikoak behar du ongi ikusi hori dela)* He be ! Herria katseta nola aldatu den , bestenaz ! *(Uzten du mahai apala gainean eta jartzera doa , usaiako katseta berriz hartuz)*

Geixan : *(Xutitzen da Joanak utzi katseta kokina hartzeko)* Jia ! Beha ezak , Pedro !

Pedro : *(Hau ere xutitzen da , katsetaren so egiteko)* Bainan nork ezarri du katseta hau , hemen ? *(Kulian ere xutitzen da)*

Tote : Norat ari haiz , Kulian ?

Kulian : Zer afera duk , Tote ?

Tote : Ez ! Hoir erten diat , ez baituk usaiari sekulan leitzen !

Kulian : Preseki ! Leitzeko gogo izigarria piztu ziake , bat batean !

Tote : Gaiztoa ! Badik aspaldi ez daukala liburu mota horrek deus pizten !

Kulian : Zer dakik , hik ?

Geixan : Bainan , nork ekarri du liburu hau hunarat ?

Pedro : Mediku asto zuri horrek ahantzia , hain segur ! Nor nahi duk izan dadin besterik ? (*Biak berriz jartzera doatzi , katseta Kulianen eskutan utziz*)

Kulian : (*Katseta alde guzietara itzulikatuz*) Bainan zoin aldetarat so egin behar da potreta hau ? Potreta hartzailea tronpatu da ! Gizonaren burua gainean eta emaztearena beherean eman ditu ! Ez dut fitsik konprenitzen !

Joana : (*Berriz xutitzen da potreta so egiteko*) Eta gainera , buluzik txu ! Marrantatuko txu ! Zer xori buruak ! (*Kulianek liburua mahai apal gainean pausatzen du eta biak jartzera doatzi*)

Terexa : (*Manez-en mahaiara doa , argazki albuma eskutan*) Potretak hauek ez nauzkizun erakutsiak , Manez ! (*Erakutsiz*) Hau duzu Martzel zena ! Hau berriz Jakes zena ! Pelo zena ! Manana zena ! Emilie zena ! Pattin zena ! Domingo zena ...

Manez : (*Aspertua*) Ontsa duzu , Terexa ! Badut aski ikusirik ! Gure astelehen hunen airosteko jeikia , goiz huntan ere ? (*Gora , Mari-ri*) Mari ! Terexaren potretak ikusi nahi dituzia ? Badira batzu pollit bezain bereziak !

Mari : Gereziak ? Ez gereziak , ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu !

Manez : Ez ! Potretak zuri erakutsi nahian dela Terexa ! Badu andana !

Mari : Anana ? Ez anana , ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu !

Manez : Eta beti ahanzten dut net elkorra dela ! Potretak , Mari , potretak ! (*Bere gana doa*) heldu niz zure xerka !

Mari : Mertxika ? Ez mertxika ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu ! (*Komoditateen uraren azantza entzuten da eta Braulio sartzen da , galtzak estekatuz*)

Geixan . Kulian . Tote . Pedro . Joana . Terexa . Mari . Manez . Braulio

Pedro : Hire barneko soberakinak libratu dituzka ?

Braulio : Bai eta nola ! Bazian aspaldi ! Hiru ziztor atera zauzkiak lerroan , bat bestearen ondotik ! (*Denak okaztatuak*)

Joana : Erraxu , Braulio ! Ez dautxugu hain beste xehetasunik galdatu , dakitanaz ! Gizon okaztagarria , xu !

Braulio : Errazue ! Ez duzue , joan den ibiakoitzean jin pentsioner berria nehork ikusi ? Hik Pedro ? Geixan ? Joana ? (*Denek buruarekin ezetz*) Bainan zer egina da gizon hori ?

Geixan : Erotegira ereman die , behar bada ! Burutik arrunt joana zian , gaizoa !

Braulio : Burutik joana , ba ! Jakin ezak guk baino argiago duela burua , gizon horrek ! (*Besteak harrituak*) Bainan segeretu bat duk ! Hitzeman dakiat ez nuela nehorri salatuko !

Tote : Bainan , erdi hila iduri zian !

Kulian : Ez zian musean artzeko ere on !

Tote : Gaizo Kulian ! Musean artzeko on ez direnak eroteagian sartzen balituzte , hi Paueko “St Luc”-en hintazke aspaldian !

Kulian : Ba , ta hi ene ondoan , kamisola batekin estekatua !

Pedro : Eta zergatik dik alegia zozoarena egiten , beraz ?

Braulio : Banaki , ez nahian erranen , nik baitakiat segetetu baten atxikitzen , baina hori ez diak erran !

Manez : Hau misterioa !

Terexa : Nola du izena ?

Braulio : Arotzena !

Terexa : Aro nola ?

Braulio : Zena !

Terexa : Ah ! Noiz hil da , gaixoa !

Manez : Terexa , otoi !

Braulio : (*Gora mintzo*) Zuk , Mari ? Ikusi duzia Bettiri Arotzena ? Badakizu : hunarat azken jina !

Mari : Mandarina ? Ez mandarina , ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu !

Braulio : Gaizo Mari ! Zu ere ez zira arras pikoan !

Mari : Pikoa ? Ez pikoa , ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu !

Braulio : He be ! Zuri zerbaiten sesiarazteko , bada lana !

Mari : Banana ? Ez banana , ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu !

Braulio : (*Gora , ahoa Mariaren beharriaren ondoan emanez*) Ez , Mari ! Nik aipatzen dutzut joan den aste ondarrean hunarat ekarri duten xaharra !

Mari : Sagarra ? Baietz ! Hori duzu ! Sagarra jaten ari nuzu !

Braulio : Bon ! Utziko dugu ! Ni beldur nuzue ez dutenez hemengo nagusiek desagertarazi !

Joana : Zergatik nahi duzu desagertaraz dezaten ?

Braulio : Jende gaixtoak baitira !

Joana : Zer erten duxu , Braulio ! Jende biziki onak txu ! Beronikak hitzeman diaxu ni hil eta ene ontasunetaz okupatuko zela , behar den bezala ! Hiltzen ahal naizela , nahi dutalarik ! Zer bihotz ona !

Braulio : Inoxenta , zu ! Ez zirea ohartua ez , gure xurgatzen ari direla ? Arotzena ere ohartua zen ba nola diren hemengo nagusiak eta segur naiz hortako dutela desagertarazi ! Entzun behar ez zuen zerbait aditu duke !

Geixan : Ez duka hik sobera filma so egiten telebixta hortan !

Joana : Braulio-k egia dixi , menturaz ! “*Les feux de l'amour*”-en ere Petula desagertarazi dixi

Bobby-k , ez zezan bere ohointza nehorri sala !

Terexa : Bainan , Joana ! Jessica duzu desagertu ! Ez Petula !

Joana : Xade !... Ah , egia duxu ! Bobby ez duxu “*Les feux de l'amour*”-en bainan “*Plus belle la vie*”-n ! Doi bat nahasten nuxu bien artean !

Terexa : Bainan !...”*Plus belle la vie*”-n ere ez duzu Bobby-rik !

Joana : Ah eza ! Nungoa dixit Bobby tzar hori nik , beraz ? (*Gizonak irriz . Felixi sartzen da*)

Geixan . Kulian . Tote . Pedro . Joana . Terexa . Mari . Manez . Braulio . Felixi

Felixi : Egun on , jaun andereak ! Ontsa girea ?

Denek : Egun on , Felixi !

Felixi : Goazen jateko salarat ! Bazkaiteko tenorea da !

Braulio : Errazu , Felixi ! Zuk baduzia Bettiri Arotzena-ren berririk ?

Felixi : Ez ! Joan den ibiakoitzetik faltatua da ! Ez dakigu nun den !

Braulio : Ez ahal dute nagusi tzar horiek desagertarazi !

Felixi : Zer derasazu , Braulio ! Zergatik nahi duzu desagertaraz dezaten !

Braulio : Jende gaixtoak baitira ! Eta bere ontasunetaz jabetu nahi izan dutelakotz , menturaz !

Felixi : Alo ! Badakit ez direla hemengo nagusiak zuekin beti goxoak bainan halere ! Ez ezazula holako idaia txarrik buruan sar !

Braulio : Zu sobera ona zira , Felixi ! Sobera ona denak ez du nihun ere gaixtakeririk ikusten ! Jandarmak abisatuak direa ?

Felixi : Ez ! Jandarmak ez dituzte abisatu nahi ! Are ! Zoazte bazkaiterat !(*Jarririk ziren xahar guziak xutitzen dira eta lerroan emaitan , Mari salbu*)

Braulio : Atx ! Nik behar dut lehenik handik pasatu ! (*Komoditateen atea erakutsiz*)

Geixan : Berriz ? Bainan handik jin haiz , oraitan !

Braulio : Behar bada , gaizki kondatu diat , oxtian ! Bi ziztor bota ditiat eta ez hiru ! (*Denak okaztatuak . Braulio ateratzen da komoditatetara buruz eta besteak bestaldetik*)

Mari . Felixi

Felixi : (*Mari-ri gora mintzo*) Mari ! Goazen ! Bazkaiteko tenorea !

Mari : Udarea ? Ez udarea , ez ! Sagarra ! Sagarra jaten ari nuzu ! (*Felixi-k laguntzen du xutitzen eta Mari ere ateratzen da*)

Felixi

Felixa : *(Hasten da xaharrek utzi puskak altxatzen , muslarien kartak , Mari-k utzi kanibeta eta sagar ondarra , eta azkenean , mahai apalaren gainean den katseta kokina eskutan hartzen du eta so egitean , oihu bat botatzen)* Oi , oi ! Bainan , nork ekarri du hau hunarat ? *(Beronika eta jaun medikua sartzen dira , sekulako ziztuan)*

Felixa . Beronika . Jaun medikua

Beronika : *(Katseta basaki hartzen dako eskutik)* Felixa ! Zuk duzu zikinkeria hau hunarat sararazi ?

Felixa : Ez , andere Beronika ! Jadanik hemen zen ! Ez dakit nork ekarri duen !

Beronika : Zahar teteldu horietarik batek , hain segur ! Ez zaitela gutaz trufa , eh ! Diziplina komisionea bihar berean bilduko dut zure kasuaren aipatzeko eta hasten ahal zira jadanik beste lan bat xerkatzen !

Felixa : Bainan , errepikatzen dautzut ez dutala nik deus ikustekorik !

Beronika : Zahar etxeen inspekturra goiz huntan jin beharra eta ! Zer erranen zuen katseta hori harrapatu balu ! Adio "Azken Hatsa"-ren fama !

Jaun Medikua : *(Katseta eskutan harturik , irri zozo batekin)* Zure fantasma hauek obratu nahi badituzu , ni , nahi duzularik prest nuzu laguntzeko !

Beronika : Are ! Zoazi bixta huntarik ! Ahalgengarria , zu !

Felixa : *(Badoa atera buruz eta gelditzen da)* Badea Bettiri Arotzena-ren berririk ? *(Beste biek inguratzen dute , behako gaixtoekin)*

Beronika : Zergatik galdera hori ?

Jaun medikua : Xantaja egin nahi , katseta kokinarena ahantz dezagun ?

Felixa : *(Izitu)* Ez , batere ! Joan den ibiakoitzetik faltatua baita ! *(Beste biek inguratzen dute eta bortxaz jararazten)*

Jaun Medikua : Zuk ez dakizu deus , eh ! Ez da hemen nehor falta ! Ados ?

Beronika : Ez da hemen sekulan Bettiri Arotzena-rik zan !

Jaun medikua : Zure onetan da izen horren ahanzte

Felixa : Ados , ados ! Ez dut deus erranen ! *(Ateratzen da lasterka)*

Beronika . Jaun medikua

Beronika : Ez ahal du beste zaharraren faltatzea nehor salatuko !

Jaun Medikua : Egin dakogun izialdurarekin , ez dut uste !

Beronika : Inspekturra jitekoa baita , gaizki gira jakiten badu ! *(Pentsaketetan ari direla , gizon krabatadun bat sartzen da , maleta eskuan . Zintzurra karrakatzen du eta besteak itzultzen dira)*

Beronika . Jaun medikua . Seraphin Zelafin

Beronika : Nor zaitut , jauna ?

Seraphin Zelafin : *(Murriz)* Seraphin Zelafin ! Departamenduko erretreta etxeen inspekturra !

Beronika : (*Faltsuki*) Oh ! Zer bozkarioa ! Zure bisitak plazerrez hantzen gaitu ! Ez dea hala , jaun medikua ?

Jaun Medikua : (*Berdin faltsuki*) Segurki , andere Beronika ! Hola , zure begietarik ikusten ahalko duzu zoin artoski artatzen ditugun hemengo zaharrieriak ! (*Beronikak behako gaixtoa*) EdoHemengo adin haundiko jendeak !

Seraphin Zelafin : Eskandala !

Jaun Medikua : Zer da eskandala ?

Seraphin Zelafin : Ez zela nehor sartzean , ene errezebitzeko ! (*Jartzen da mahai batean eta dokumentu bat ateratzen bere maletatik*) Hori ez dut suportatzen ! Beharko dut departamenduko zuzendaritzari seinalatu eta ...

Beronika : Ez bainan ...Ez ginakian xuxen zer tenoretan jinen zinen eta ...

Seraphin Zelafin : Ixo ! Ez nezazula motz ! Gainera , ez dautazue jartzea ere proposatu ! Bigarren eskandala ! (*Idazten hasten da*) Ez zen "Azken Hatsa" erretreta etxearen sartzean nehor , Seraphin Zelafin inspekturraren errezebitzeko ...

Beronika : Jaun inspekturra ! Nahi duzu zerbait hartu , bisita hasi aintzin ?

Jaun Medikua : Kafea ? Xokoleta ?

Seraphin Zelafin : Kafesnea ! Kasu ! Ez sobera beroa ! Sobera beroa ez dut suportatzen ! Epela ! Kafesne epela bainan kasu ! Ez sobera epela halere ! Kafesne sobera epela ez dut suportatzen !

Jaun Medikua : Zukraturik ?

Seraphin Zelafin : Bixtan da ! Hau galde zozoa ! Bainan kasu : ez zukre erhautsa ! Mokorrak ! Bi zukre mokor ! Ez dut zukre erhautsa suportatzen ! Eta kafesnearekin , ogi xigortua ! Bi xerra ogi xigortu burrarekin ! Kasu ! Aise zabaltzen den burra gurin hortarik ! Burra gogortua ez dut suportatzen ! Gero , joanen zirezte pentsionerren bila eta hemen emanen dira lerroan ! Kasu ! Denak elegantki beztiturik eta garbiturik ! Ez ditut jende usainduak suportatzen !

Beronika : Ez arrangura hortako , jaun inspekturra ! Molde sanitarioak xorroxki errespetaarazten ditugu ! Gure jendeek usain goxoa dute !

Jaun Medikua : Ba , ba ! Hemengo xaharrak aise garbitzen ditugu ! Edo...Aise garbitzen dira !

Seraphin Zelafin : Eta berriz jinen naizelarik ...

Beronika : Ah ! Berriz jitekoa zira !

Seraphin Zelafin : Ez nezazula motz ! Eta berriz jinen naizelarik hemengo nagusi berriarekin ...

Beronika : Bai ! Ene tokia hartzen duena ...

Seraphin Zelafin : Ixo , enfin ! Norbaitek hitza mozten dautalarik , ez dut suportatzen ! Nagusi berria eta biak berriz jinen girelarik , beharko daukute pentsionerrek kantu bat eman ! Nik biziki maite ditut kantuak ! Bainan kasu : xuxen emanak direnak ! Kantu bat gaizki emana delarik , ez dut suportatzen !

Jaun Medikua : Hori ez da problema !

Seraphin Zelafin : Ah ! Zoin da problema ?

Jaun Medikua : Ez ! Erran nahi dut gure zaharrek biziki maite dutela kantuz artzea ! Ez dea hala , Beronika ?

Beronika : Baietz ! Egun guzian ari dira tira ahala kantuz ! Ez dea hala , jaun medikua ?

Jaun medikua : Ba, ba ! Ezin ixilduak ! Eta zoin xuxen ari diren ! Ez dea hala , Beronika ?

Beronika : Baietz , jaun medikua ! Iduri dute xoriak xistuka !

Seraphin Zelafin : Xori xistua ? Ez dut xori xistua suportatzen ! Goazen hemengo gela eta ganbaren bisitatzera ! Agian , menaia egina da ! Erhautsari alerjikoak naiz eta ez ditut lupu sareak suportatzen ! Eta nahi dut barne guziek usain goxoa ukan dezaten ! Jadanik errana dut : Ez ditut usain txarrak suportatzen !

Jaun Medikua : Dena usain goxo duzu , hemen ! *(Komoditateetako uraren azantza entzuten da eta Braulio agertzen da , galtzak estekatzen ari)*

Beronika . Jaun medikua . Seraphin Zelafin . Braulio

Braulio : Zer usain tzarra utzi dutan barne hortan !

Seraphin Zelafin : *(Bere sudurra mokanesarekin tapatuz)* Jesus , zer usain okaztagarria ! *(Erdi trenpetxarturik , jartzen da)*

Beronika : Braulio ! Hets ezazu borta hori eta zoazi hemendik ! Txauri , jaun inspekturra ! Bisita hasiko dugu !

Seraphin Zelafin : Jesus , zer infekzioea ! *(Bi erizainek airea egiten dakote)*

Braulio : Ez da ene falta paperra fini balin bada ! Ez dakit nork enpleatzen duen hain beste ! *(Inspekturretik hurbilduz)* To ! Inspekturra baitzira , jakin duzia hemengo pentsioner bat desagertu dela !

Seraphin Zelafin : Zu ez zaitela nitaz hurbildu ! Eta zer da desagertze ixtorio hori ?

Beronika : Ez ezakozula kasurik egin , jaun inspekturra !

Jaun Medikua : Ez daki zer erraiten duen !

Beronika : Burua arrunt nahasia du , gaizoak !

Braulio : Ez dut burua nahasia , ez ! Bettiri Arotzena du izena eta joan den ibiakoitzean , jin orduko faltatu da !

Seraphin Zelafin : *(Pentsaketan)* ...Bettiri Arotzena ! Izen hau ez zaut arrotz !... *(Beronikari)* Hain zuzen , desagertzeaz mintzo baitzirezte , seinalatu behar dautzut hilabete bat gehiago egin beharko duzula , hemen ! Zure segida hartu behar duena ere faltatua baita ! Nehork ez daki zer bilakatua den !

Jaun Medikua : Ezagutzen duzu ?

Seraphin Zelafin : Ez ! Ez dut ezagutzen ! Eta zer afera duzu ? Ez ditut jende sobera kuriosak suportatzen ! Zure diskrezione eskasa ere beharko dut seinalatu ! Beraz anderea , beharko duzu zure postuan oraino zorbait denboraz segitu !

Beronika : Malur guziek badute beren alde ona ! Hemengo pentsionerrek heiekin ukanen nutela oraino ! Hipaka nigarrez ari ziren hemendik abian nizala jakin dutelarik ! Ez dea hala , jaun medikua ?

Jaun Medikua : Ba , ba ! Bizpahiruek beren burua leihotik bota nahi zuten zure partitzearen berria jakin dutelarik ! Doi doietarik atxiki ditut !

Braulio : Hau faltsu pareta ! Ez zaituzte nehork ikusten ahal !

Seraphin Zelafin : Beraz , jaun andereak ? Gizon usaindu hunek diona egia dea ? Pentsioner bat falta da ?

Beronika : Ezetz ! Denak hor dira eta ...*(Oihu larriak entzuten dira kanpotik)* Jia ! Zer zen hori ? *(Medikua atera doa eta Arotzena agertzen da , beti auhenka . Medikuak besotik hartzen du eta herrestan kadera batean sararazten)*

Beronika . Jaun medikua . Seraphin Zelafin . Braulio . Arotzena

Braulio : *(Kontent)* To ! Hara nun den gure Arotzena !

Seraphin Zelafin : Egia da , jaun andereak ? Gizon hau ezagutzen duzue ?

Beronika : Bai edo ...Ez !

Juan Medikua : Ez , ez ! Enfin ! Ez dakit !

Beronika : Ikustez , behar bada ...

Braulio : Bixtan da ezagutzen dutela ! Hau zela faltatua !

Seraphin Zelafin : *(Erizaineri)* Ah ! Zer ari zen pentsioner hau kanpoan ?

Beronika : Ez bait ginen ohartuak !

Seraphin Zelafin : Ah ! Ez zirezte ohartzen , xahar bat faltatzen zauzuelarik ! Seinalatuko dut !

Juan Medikua : Ba , ba ! Ohartuak ginen , ba ! ...

Seraphin Zelafin : Ah ! Ohartuak zinezten eta ez duzue seinalatu ! Seinalatuko dut !

Jaun Medikua : Erran nahi baita ...Ez ginen segur bere faltatzeaz ohartuak ginen edo ez ...

Beronika : Eta ikusiz zertaratua den , ez ditaik urrun joan ! Bon ! Gizon hau infirmeriarat ereman dezagun !

Seraphin Zelafin : Ez ! Zuen gelak eta ganbarak bisitatu behar ditugu berehala ! Badugu aski denbora galdurik ! Beranta ukaitea ez dut suportatzen !

Jaun Medikua : Eta zuk Braulio , besteak abisazkizu kantu bat behar dutela prestatu hemengo nagusi berriarendako !

Braulio : Kantu bat ? Zer kantatuko dugu ?

Jaun Medikua : Ez dakizia kanturik !

Braulio : Bai ! Ezagutzen dut *"Bali Balo sur sa moto"* !

Seraphin Zelafin : Jaun andereak ! Azken aldikotz ! Nere pazientzia zabala da , bainan baditu bere mugak , halere ! Eta aitortuko dautzuet hemengo usain usteldua ezeztatuko duen aire sanoago baten hartzeko prisa gorrian direla nere sudur ziloak ! (*Hiruak ateratzen dira*)

Braulio . Arotzena

Braulio : (*Irriz*) Orduan ! Krapula , hi ! Nun hintzan !

Arotzena : Hazparneko bestetan !

Braulio : Hazparneko bestetan ? Eta nola joan haiz , haraino ?

Arotzena : Stop-ean , to ! Alimaleko besta egin diat ! Neo , zer pixtafla !

Braulio : Eta zer duk marka hori , begi ixkinean ?

Arotzena : Joka ari izan bait nuk , to ! Neska bat begistatua nian eta bi mutiko gazte hasi zazkolarik hurbiltzen , inguru minguruka arranoa bezala , erotu nuk ! (*Felixa sartzen da*)

Braulio . Arotzena . Felixa

Felixa : Ah ! Gibelerat jin zauku gure pentsionerra ! Zonbat arranguratu nizan ! Nun zinen ? (*Arotzena berriz hasten da auhenka*)

Braulio : Hazparneko bestetan !

Felixa : Baietz ! Ez konda mentskeririk , Braulio !

Braulio : (*Arotzenari*) Ez dik balio hire zinema hunekin segitzea ! Beste pentsionerrek ere badakie !

Felixa : Zer ?

Arotzena : Alta , hitzemana huen ez hiela nehorri erranen !

Felixa : Bainan ...

Braulio : Zer nahi duk ! Mihi luze hau ezin atxik ! Huni ere erten ahal dakiagu ! Felixa gurekin duk !

Arotzena : Ah baia ! Zer neska pollita ziren , Felixa ! (*Xutitzen da eta Felixiri lotzen , dantza egiteko moduan*) Dantzan artzen bagine !

Felixa : Aah , kokina zu ! Orai , konprenitzen ditut esku perekak ene ipudi mazeletan nundik heldu ziren ! Eta zergatik zinema hori ?

Arotzena : Baditut ene arrazoinak bainan ez dauzkizut oraino salatzen ahal !

Felixa : (*Arotzena utziz*) Besteak deitzen ditut ! Kontent izanen dira zure ikusteaz !

Braulio : Nik haatik itzulino bat egin behar dut xoko hartarik ! (*Komoditateak erakutsiz . Felixa eta Braulio ateratzen dira , bakotxa bere aldetik*)

Arotzena

Arotzena : (*Sakelako telefona hartzen du eta zenbaki bat egiten*) Bai ? Manez Iribarne-ren semea ? Hemen "Azken Hantsa" erretreta etxea ! Zen abisatzeko Manez , zure aita goiz huntan pausatu dela eta ...(*Beste xaharrak entzuten dira*) Zaude ! Berriz deitzen zaitut ! (*Telefona mozten*)

eta sakelan emaiten du . Beste xaharrak sartzen dira)

Arotzena . Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Manez . Joana . Terexa . Mari

Denak : *(Arotzena ikustean , kontent direla erakutsi behar dute)* To , Bettiri !... Beha ezazue ...Felixi-k egia zian ...Arotzena gaiztoa hor duk ...*(Eta beste ...)*

Arotzena : Eman zaitezte ene parrean ! *(Mahai gainera igaiten da eta xaharrak lerroan emanen dira , publikoari bizkarrez , salbu Mari ! Hau usaiako lekura doa jartzera)* Ez zaitezte hemengo erizainen peko egon ! Ohartua naiz nagusien tette xakurrak bilakatuak zireztela ! Ihardoki behar duzue ! Ez zirezte horiek baino guttiago ! Heiek lukete zuen peko izan behar ! Ez ahantz zuen sosetarik dutela heien ogibidea ateratzen ! Bizitzeko gelditzen zauzkizuen urte porrokkak , burua txut iragan ditzagun ! Burua txut eta uros ! Gure beldur eta penak gaindi ditzagun eta izan gaiten beti baikor eta umoretsu ! Ez gaiten gazte denborako urteen nostalgiarat lerra bainan bizi dugun oren bakotxa goza ! Goza ! Osoki goza ! Kabala hildegi bat egin nahi zuten etxe huntaz bainan guk besta sala bat bilakaaraziko dugu ! *(Xaharrak eskuzartaka eta Arotzena mahaitik jausten da)* Eta zuen hemengo bizi tristearen aldatzen hasteko , lehen lehenik ariko zirezte dantzan !

Terexa : Dantzan ? Bainan Xemartin ene senarraren beha egon behar dut , dantzan artzeko !

Arotzena : Xemartin agertzeko artean , ariko zira Pedro-rekin ! *(Biak dantzan artzeko plantan emaiten ditu)*

Pedro : Ahantzia baitut nola artzen den dantzan ! Zoin zango mugitzen da , lehenik ? Eskuinekoa ala ezkerrekoa ?

Terexa : Xemartin senarra beti eskuinekotik hasten da !

Pedro : Ongi ! Ni ere eskuinetik hasiko naiz !

Terexa : Eskuinetik hasten da , ezkerrekotik hasten ez delarik ! Dependitzen du !

Pedro : Ontsa aintzinatu nuzu , Terexa !

Arotzena : Geixan eta Joana elgarrekin ! *(Elgarrekin plantatzen ditu)*

Joana : Ni haatik beti biziki trebe izan nuxu dantzan !

Geixan : Java ? Polka ? Kadrilla ?

Joana : Bai bai , horiek ere bai , bainan sustut Twista !

Geixan : Agian , telebixtako ixtorioetan baino gehiago konprenitzen zira dantzan !

Joana : Bainan kasu Geixan eh ! Ez ditxaaxula zangoak lehert , eh ! Panaria badixit eskuineko zangoko erhi pototsan !

Arotzena : *(Jarria den Mariaren bila doa eta azkar mintzatzen da)* Eta zu Mari , Manez-ekin ariko zira ! Heldu zauzu xerka !

Mari : Jerka ! Nik ez dut jerka dantzatzen ez ! Nik java ! Bakarrik java !

Manez : *(Badoa xerka eta besotik hartuz xutiarazten du , irriz)* Are Mari ! Mugi ditzagun gerri eta zango !

Mari : Tango ? Nik ez dut tango dantzatzen , ez ! Nik java ! Bakarrik java !

Manez : Baietz ! Java emanen dugu ! Nik ez dautzut erran tango !

Mari : Fandango ? Nik ez dut fandagoa dantzaten , ez ! Nik java ! Bakarrik java ! (*Plantatzen dira*)

Manez : Zaude ! Behar ditut lehenik tinkatu galtzak ! (*Galtzak tinkatuz*)

Mari : Valtsak ? Nik ez dut valtsa dantzaten , ez ! Nik java ! Bakarrik java !

Tote : Eta Kulian eta nik ? Ez duguia dantzan artzeko dretxorik ?

Kulian : Ez diagu kabaliersarik !

Arotzena : Aski duzue elgarrekin artzea !

Tote : (*Kulian-i lotzen da*) Are ! Haugi Kulian ! Berdin segur nuk enekin dantzan artzeko enbeia izigarria dukala !

Kulian : (*Arotzenari*) Zer musika emanen duzu ? Ez ezazula tinke tinke emaiten diren horietarik eman eh , Tote tzar hau sobera gozatuko baita , bestenaz !

Arotzena : Are ! Has zaitetze ! Nik badut lan bat egiteko ! (*“Bluetooth” delako bat plantatzen du eta musika abiatzen da . Xaharrak hasiko dira dantzan eta Arotzena mahaian jartzen da , ixkiratzen hasteko*)

Terexa : Erran bezala eh , Pedro ! Xemartin ene senarra agertu orduko , lekua uzten dakozu !

Pedro : Baietz , Terexa ! Espero dut halere Xemartin agertu baino lehentxago finituko dela dantza hau !

Terexa : Dantza hunek orhoitarazten daut Jakobe-rekin eman nuen java !

Pedro : Jakobe... zena ?

Terexa : Bai ! Nola pentsatu duzu ?

Joana : Atx ! Geixan ! Kasu ene panariari , erteaz geroz !

Geixan : Bainan , Joana ! Ikusia duzu zer zango luzeak dituzun ! Bortxatua naiz noizbait kausitzea !

Joana : Zer zango luze ! *“Quarante quatre fillette»* egiten dixit !

Manez : Z oin kakola ziren , Mari ! Zurekin dantzatzea ez da plazer bat bainan sekulako borroka !

Mari : Roka ? Nik ez dut roka dantzaten , ez ! Nik java ! Bakarrik java !

Tote : Kulian ! Erritmoa segi ezak ! Bat , bi , hiru , bat , bi , hiru ...

Kulian : Tote ! Ez haizela eni hain beste kola , eh ! (*Eta minuta batez segituko dute dantzan*)

Arotzena : Bon ! Aski dantza ! (*Musika itzaltzen du*) Entzun nezazue denek ! (*Komoditateetako uraren azantza entzuten da eta Braulio berriz agertzen da*)

Arotzena . Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Manez . Joana . Terexa . Mari . Braulio

Braulio : (*Dantzan ariko da bakarrik*) “Para para , para para , para para , papa” ... Ni dantzaz errabiatua naiz ! Eta ene aferen egiten ari nintzala , gustuan jarririk , musika entzun orduko ipurdia

hasi zaut eskuin , ezker , ezin kontrolatuz eta ziztor batek kuvetta huts egin ! *(Besteak okaztatuak)*

Arotzena : *(Idatzi duen paperra erakusten die beste xaharri)* Entzun nezazue denek ! Badut petizione bat prestatua gure hemengo bizi moldeen hobetzeko eta erranen dautazue horrekin ados zireztenez ! *(Besteak bere inguruan emaiten dira , Mari salbu ! Hau kanapean jartzera doa eta lokartzen)* *(Arotzena leitzen hasten da)* “ *Andere Beronika eta jaun medikua : Guk , “Azken Hatsa” erretreta etxeko pentsionerrek aho batez galdatzen dautzuegu errespetu gehiago erakuts dezazuen hemendik goiti , zor daukuzuen ikustatearekin trata gaitzazuen . Ez balin baduzue gure galdea konduan hartzen , bortxatuak izanen gira hemen pairatzen dugunaz katsetarien eta botere publikoen abisatzea !”* *(Xaharrer)* Ontsa zazuze ? *(Xaharrek baietz , eskuzartaka)* Nahi duzue beste zerbait gehitu ?

Geixan : Bai ! Arnoa nahi dugula mahaian !

Pedro : Eta igandetan , aperitifa !

Terexa : Apairuetan , bi deserta ! ...Xemartin agertuko delarik , ukan dezan bere partea !

Tote : Astean behin , herriko ostaturat joiteko dretxoa !

Kulian : Ez Tote ! Ez astean behin , ez ! Astean bi aldiz !

Terexa : Bai , Kulian ! Bi aldiz , ba ! ...Astean bi aldiz hil harrirat joiteko dretxoa ! Aldi batekin ez dut aski !

Joana : Telebixta gehiago ! Nola nahi duxie ixtorioak konpreni ditzatan , ez badut aski ikusten !

Manez : Pikura guziak Felixik egin ditzan !

Braulio : Eta paper gehiago komoditateetan !

Arotzena : Ongi da ! *(Paperra plegatuz eta sakelan sartuz)* Orai zoazte ! Bon ! Orai uzten ahal nuzue bakarrik , bi minuta ?

Braulio : Goazen beste saloinera ! Kantu bat behar dugu prestatu , omen , hunarat jinen den nagusi berriari emaiteko ! Inspekturrak galdatua du !

Arotzena : *(Irriz)* Ah , kantu bat ? Kantu pollita erakutsiko dautzuet ba , nik ! Gero errepikatuko dugu ! Zu Manez , egon zite enekin ! *(Xaharrek ateratzen hasten dira , salbu Mari , lo baita)*

Braulio : Atx ! Zaute ! Berehala heldu naiz ! Lehenik , behar dut xoko hartarik pasatu ! *(Komoditateen atea erakutsiz eta harat doa)*

Arotzena . Manez . Mari

Arotzena : Mari iratzararazten ahal duzu , Manez ?

Manez : *(Mariren gana doa eta eztiki mintzo zako)* Mari ! Mari ! Iratzar zite ! *(Hau ez da mugitzen)* Mari ? *(Eskua hartzen dako)* Mari ? Mari ? ...*(Hau ez da oraino mugitzen)* Jia ! Ez ahal da ?...Mari ?

Arotzena : *(Hurbiltzen da eta doi bat inarrostean du)* Iratzar zite , Mari ! *(Ez da mugitzen)*

Manez : He be ! Zer loa !

Mari : *(Iratzartzen da)* Slow-a ? Nik ez dut slow-a dantzatzen , ez ! Nik java ! Bakarrik java !

(Manez-ek laguntzen du xutitzen eta badoa)

Arotzena . Manez

Manez : Zergatik hemen egonarazi nuzu , Bettiri ?

Arotzena : Zaude ! *(Sakelako telefonoa hartzen du eta zenbaki bat egiten)* Bai ? Allo ? Hemen “Azken Hatsa” erretreta etxea ! Zu zira Manez Iribarne-ren semea ? Zure aita goiz huntan pausatu da !

Manez : Zer ?

Arotzena : *(Telefonoan segituz)* Bai , hila , bai !

Manez : Bainan ...Zer kondatzen duzu ! Noiz hil naiz , ni ?

Arotzena : *(Telefonoa baztertuz)* Xo , Manez ! *(Telefonoan)* Pena haundia zuretako , hain segur ? ...Nola ? ...Zonbat sos utzi duen eta erran duenez etxea nori uzten dakon ? Ah , hori duzu arrangura ! Tristeia , zu ! Jakin ezazu ez duela Manez-ek zazpi urte huntan minuta bat ere iragan , zuri pentsatu gabe , azkenean bere ikusterat jinen zirelako aments zozoarekin ! Zazpi urte zure beha egon dela eta ez zira sekulan agertu ! Mierda xikina ! ...Nola ? Autoa panan zinuela ? “Filtre à huila” aldatu behar ? ... Bon ! Zure aita zena pasatzen dautzut ! *(Manez-i telefonoa pasatzen dako)* Mintza zite , Manez !

Manez : *(Telefona hartzen du , tristeki)* Allo ? Aita , ba ! ...Ez ! Ez naiz hila , ez ! Badakiat prisatua haizela bainan zinez mundu huntarik joanen naizelarik , ez ezakala ene etxe eta sosetan konda ! *(Telefonoa itzultzen dio Arotzenari)*

Arotzena : Barkatu min egin balin badautzut Manez , bainan nahi nauzkizun zure ilusio faltsu horiek burutik kendu !

Manez : Ez , ez Bettiri ! Mina ez dautazu zuk egiten , ez ! Erran nezake ere on egin dautazula , begiak ideki bait ditut , zuri esker ! Bon ! Akitua naiz ! Banoa lo egitera ! *(Komoditateetako uraren azantza entzuten da eta Braulio berriz sartzen)*

Arotzena . Manez . Braulio

Braulio : Errak Manez ! Lo egiten baduk , entsea hadi sudur zilo horien tapatzerat , ez ditzaten hire zurrunga izigarriek gure beharriak kolpa !

Manez : Ez haizela arrangura , Braulio ! Naski aldi huntako loa , betiko loa izanen den ! Iratzartzerik ez duen loa !

Braulio : *(Espaldatik hartuz)* Jesus Maria ! Ez ahal haiz zurrungan ariko eternitate guzian ! *(Braulio-ri irrino bat egiten dio Manez-ek eta tristeki ateratzen da . Usaiako soinu melankolika entzuten da)*

OIHALA

3° AGERRALDIA

(Egongela berean gira , xaharrak usaiako tokietan . Geixan , Pedro , Tote eta Kulian eskuineko mahaian musean , kanapean Mari erdi lo eta Joana katseta leitzen ari , ezkerreko mahaian Terexa , bere argazki albumari so . Ondoan duen Manez-en kadera haatik hutsa da . Usaiako musika entzuten da)

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari

Geixan : Hordago paretan !

Kulian : Kanta !

Pedro : Dobleak ! (Kartak erakutsiz)

Tote : (Erotua) Kulian ! Azken aldia duk hirekin ari naizela musean ! (Geixan eta Pedro uzkaliak irriz)

Joana : (Katseta irakurtzen) To ! Zergatik behar dixie sozialistek Lurdera joan , besta egiteko ?

Geixan : (Bere ganat doa) Sozialistek besta egiten Lurden ? Zer kondatzen duzu , Joana !

Joana : Baietz ! (Erakutsiz) Hemen emana duxu : “Lourde defaite pour les socialistes” ! “Lourde ...Defaite” ! Lurdeko bestak , dudarik gabe !

Geixan : Ez Joana ! Erran nahi du sozialistek aise galdu dutela bozetan !

Joana : Lurden ! Bah ! Mirakuilua izanen zuxun ba , Lurden irabazi balute !

Terexa : (Beti argazkieri so) Manez ere joan zauku , gaizoa ! Zer enterramendu pollita ukan duen !

Pedro : Gaizo Manez ! Bederen , ez du sofritu gaizoak !

Kulian : Nik ere nahi nuke hola partitu ! Lotarik ez iratzartu !

Tote : Nik badakit nola hilen nizan ! Kulian-ek musean tanto bat irabaziko duelarik , ene bihotzak ez du jasanen ! (Besteak irriz)

Terexa : Halere , Manez-en heriotzak badu abantaila bat : potreta bat gehiago badutala ene kolekzionean !

Joana : Ba, ba ! Bi heriotze , egun berean !

Pedro : He ? Bi heriotze ?

Kulian : Zoin duzu bestea ?

Joana : Jimmy ! *“Les feux de l’amour”*-eko Jimmy ! Hau ere atzo hil duxu !

Terexa : Bainan Joana ! Badituzu bi urte Jimmy hila dela !

Joana : Ah baia ? Zoin dut atzokoa nik , beraz ? Zuk badakizia , Mari ?

Mari : Ari ? Ez ! Ez nuzu deusetan ari !

Joana : *(Berriz hasten da katseta leitzen eta bat batean xutitzen da)* Jesus !

Besteek : Zer da !

Joana : Gaizo apostulua !

Besteek : Apostulua ?

Joana : Ba ! Jondoni Joanes apostulua ! Ez nakien zerri zangoak bazituela !

Besteek : Eeh ?

Joana : *(Katseta pausatzen du musularien mahai gainean)* Zerri zangoak , ba ! Beha ezazue , hemen emana da : “St Jean ...Pied De Port” ! *(Besteak irriz)*

Pedro : Gaizo Joana ! “St Jean Pied De Port” , Donibane Garazi duzu !

Joana : Ah baia ! Nik uste nixin Donibaneko jendeek zango normalak zituztela !

(Komoditateetako uraren azantza entzuten da eta Braulio sartzen da)

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari . Braulio

Braulio : Errazue ! Norbaitek Arotzena ikusi dia ? Naski berriz desagertu den ! Bardaz geroz faltatua da !

Geixan : Berriz Hazparneko bestetarat joana , hain segur !

Braulio : Hazparneko bestak fini dituk aspaldian ! Ez , ez ! Hor baduk besterik ! Ni ari nuk ez ote dutenez hemengo nagusiek desagertarazten lagundu , alegia zozoarena egiten zuela oharturik !

Pedro : Eta hemengo usai txarrak serioski inarosten zituela ikusirik ! *(Felixi sartzen da)*

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari . Braulio . Felixi

Felixi : Errazue ! Bettiri Arotzena berriz faltatu da ! Bere ganbara hutsik zen goiz huntan eta zoko guziak miatu ditut bainan ez da nihundik ageri !

Braulio : Eta zer diote nagusiek ?

Felixi : Ukatzen dute ! *(Beronika sartzen da sekulako muturrean , paper bat eskuan , jaun medikuak segiturik)*

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari . Braulio . Felixi . Beronika . Jaun medikua

Beronika : Nork idatzi du petizione hau ? Felixi , utz gitzazu ! Behar dugu jende hauekin serioski solastatu !

Braulio : Ez ! Nahi badu hemen egon , hemen egonen da !

Tote : Beharko duzue Felixi gehiago errespetatzen ikasi !

Kulian : Gure errespetatzen ikasi beharko duzuen bezala !

Beronika : (*Sesitua*) Bainan ...

Jaun medikua : (*Irri zozo batekin*) Zer gertatzen zake tetele andana huni ! Zer duzue : hil kutxa aintzineko azken putarrak ?

Joana : (*Ostiko bat emaiten dako ipurdian*) Hik jasta ezak ene "*Quarante quatre fillette*" huni !

Jaun Medikua : Atx ! Bainan ! Erotuak dira !

Beronika : Zer pasatzen zauzue ! Nork dauzue burua hola berotu ? (*Felixiren gana doa*) Zuk , Felixi ? Zuk ixkiratua duzia paper hori ?

Felixi : (*Izitua*) Ez ! Nik ez dut deus egin !

Pedro : (*Beronikari kana ukaldi bat emaiten dio ipurdian*) Hik utzan Felixi trankil , eh ! (*Felixi xoko batetarat baztertzen da*)

Beronika : Jaun medikua ! Zoazi kalmatzeko pikuren xerka !

Geixan : (*Besotik hartuz*) Ez ! Astoputz zuria hemen egoiten da ! Zer egina duzue Arotzenaz ?

Jaun medikua : Eskandala ! Gu egun guziz zuen zerbitzuko ari eta hara nola eskertzen gaituzuen !

Mari : (*Xutitzen da eta medikuaren gana doa*) Zuek gure zerbitzuko ? Gutaz baliatzen ba ! Ez ditugu zuen gaixakeriak gehiago onhartuko ! Denek jakinen dute gurekin nola ari zirezten ! (*Denak harriturik gelditzen dira , Mari-ri so*) ...Noiztenka gertatzen zaut eh zer pasatzen den konprenitzea ! (*Bi erizainak xaharren harriduraz baliatzen dira eskapatzeko*)

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari . Braulio . Felixi

Pedro : Hobe duzue eskapatzea ba , ez balin baduzue nahi ene kanari berriz jastatu !

Felixi : (*Irriz*) Txaurte enekin ! Tisana bat hartuko dugu jangelan ! Badugu denek ere eztitzearen beharra !

Braulio : Atx ! Heldu naiz berehala ! (*Komunetara doa eta besteak bestaldetik ateratzen dira . Gela hutsik egonen da segunda zonbaitez eta Beronika eta jaun medikuaren buruak agertzen dira erdiko atetik . Ez dira sartzera menturatzen*)

Beronika . Jaun medikua

Beronika : Sartzen ahal gira ? Ez da irriskurik ?

Jaun medikuak : Ez ! Ez da irriskurik ! Ero salbaiak joanak dira ! (*Sartzen dira*)

Beronika : Bainan zer pasatu zakote burutik ?

Jaun medikua : Ez dut konprenitzen ! Eta erran dute Arotzena berriz faltatu dela ! Zuk badakizu zerbait ?

Beronika : Ez ! Zuk zinuke jakin behar !

Jaun medikua : Zergatik nik ?

Beronika : Ez dituzia zaharrak zuk desagertarazten , usaian ?

Jaun medikua : Ez ahantz partzuergoan ari girela !

Beronika : Hori ez dakit ! Zuk duzu pikura egiten !

Jaun Medikua : Zuk manaturik !

Beronika : Ez zaitu nehor obeditzera bortxatzen ! (*Zahar etxeetako inspektura sartzen da , bainan ez dira ohartu*)

Beronika . Jaun medikua . Seraphin Zelafin

Jaun medikua : Ah hori duzia ! Kasu Beronika ! Ez zitela enekin hola josta , eh ! Hain bat gaixto zuretzat !

Beronika : Mehatxatzen nuzu ?

Jaun medikua : Ni erortzen banaiz , zu ere eroriko zira ! (*Inspekturrak botza karrakatzen du*)

Seraphin Zelafin : Zendako erori behar zirezte ? (*Biak harritzen dira*)

Beronika : (*Faltsuki*) Ooh ! Seraphin Zelafin jaun inspekturra ! Zer plazerra ! Ez dea hala , jaun medikua ?

Jaun medikua : (*Berdin faltsuki*) Eta nola ! Prisatua ginen zure berriz ikusteaz ! Ez dea hala , andere Beronika ?

Beronika : Baietz ! Goiz huntan oraino ari ginen : «Bainan noiz jinen da inspektur maitagarri hori» !

Seraphin Zelafin : Alta aldi huntan ere , ez zen nehor atean , ene errezebitzeko !

Biak : (*Ez dakite zer erran*) He bee !...Nola erran ...

Seraphin Zelafin : (*Mahaian jartzera doa eta ixkiratzen hasten da*) Seinalatuko dut ! Eta egin dautzuet galdera bat : jaun medikua , zergatik erran duzu «ni erortzen banaiz , zu ere eroriko zira» !

Jaun medikua : He be ...Erran nahi baita ...Andere Beronika batzutan promenatzen dut ene bizikletan , bera «portebagage»an eta erten nakon «sekulan erortzen banaiz , zu ere eroriko zira» !

Seraphin Zelafin : Ah ! Bizikletan promenatzen hemengo pentsionerrak bakarrik utzirik ! Seinalatuko dut !

Beronika : Ez , bainan ...

Seraphin Zelafin : Ixo ! Ni naiz mintzo ! Norbaitek hitza hartzen dautalarik , ez dut suportatzen ! Bestalde , joan den aldi faltatua zen delako Bettiri Arotzena hura , beti hemen da agian ! Ez duzie berriz eskapatzera utzi !

Beronika : ...Ez , ez ! Hemen da , ba !

Seraphin Zelafin : Nahi dut ikusi !

Beronika : Bainan ...Mementoan ez da libro eta ...

Seraphin Zelafin : Nahi dut ikusi ! Norbaitek zerbait errefusatzeko dautalarik , ez dut suportatzen !

Jaun medikua : Erran nahi baita ... Bisita medikalan da !

Seraphin Zelafin : Bisita medikalan ? Ez zirea zu , medikua ?

Jaun medikua : Eeh ...Erran nahi baita ...Erakutsi dakot nola egin behar zuen eta berak egiten dako bere buruari bisita medikala !

Seraphin Zelafin : *(Harritua)* Ongi !...Seinalatuko dut ! *(Komoditateetako uraren azantza entzuten da eta Braulio agertzen)*

Beronika . Jaun medikua . Seraphin Zelafin . Braulio

Hiruak : *(Usainarekin okaztatuak)* Puahh ! ... *(Inspekturrak bere mokanesa berriz ateratzen du)*

Braulio : Zer nahi duzue ! Bardako ilarrak , hain segur ! *(Inspekturrak hurbiltzen da)* Errazu jauna ! Zu inspekturra baitzira , hauek seinlatu dautzute Bettiri Arotzena berriz desagertu dela ?

Seraphin Zelafin : Ez ! ...Bainan zu berehala atera zaitez gela huntarik !

Braulio : Banoa kantu errepikaldirat ! *(Ateratzen hasten da eta gelditzen)* Ah , ez ! *(Komoditateetako atea erakutsiz eta berriz harat doa)*

Beronika . Jaun medikua . Seraphin Zelafin

Seraphin Zelafin : Ah , bisita medikala , eh ! Nun da Bettiri Arotzena ?

Beronika : ...Egia erran ...Ez dakigu !

Jaun medikua : Nik segurik , ez dut beste mundura igorri , eh ! *(Bere hutsaz ohartzen da)* Hups !

Seraphin Zelafin : Nola !?! Zuen pentsionerrak beste mundura igortzeko usaia baduzue?

Beronika : Ez ! Jaun medikuak erran nahi du Manez pentsionerra dela beste mundura joan ! Joan den astean hil da , lo zelarik !

Jaun medikua : Hola , ganbara bat behar bait ginuen lholdiko kontesarentzat , ez dut nehorik pikurarik egiteko beharrik izan ! Manez-ek berea libratu baitu ! *(Bere hutsa ohartzen da)* Hups !

Seraphin Zelafin : Ez dut fisik konprenitzen ! Azkenean , nor da desagertua ! Arotzena , Manez ala lholdiko kontesa ! Eta zer da pikura ixtorio hori !

Beronika : Ah ! Nik ez dakit ! Galda jaun medikuari !

Jaun medikua : Hau emazte maltzurra ! Zuk nuzu zahar batzuen bizia laburtzera bortxatzen !

Seraphin Zelafin : Nola !?!?

Beronika : Nik ez dakot deus galdatu ! Gizon hori net gaixtoa duzu , jaun inspekturra !

Jaun medikua : Hau emazte sorgina !

Seraphin Zelafin : Badut aski entzunik ! Hobe duzue abokata ona hautatzea , biek ere ! Atera zaitezte ene bixtatik eta pentsionerrak hunarat ekar ! (*Ateratzen dira tarrapatan , biak elgarri kolpeka*)

Seraphin Zelafin

Seraphin Zelafin : (*Sakelako telefonoa hartzen du eta zenbaki bat egiten*) Allo ? Departamenduko erretreta etxeen zuzendaritza ? Hemen Seraphin Zelafin inspekturra ! «Azken Hatsa» erretreta etxeak bere nagusi berria behar du lehen bait lehen ! ...Nola ? ... Bidean dela ? Bost minuten buruko hemen dela ? Ongi ! (*Telefonoa altxatzen du eta Felixi sartzen da*)

Seraphin Zelafin . Felixi

Felixi : Nor zaitut , jauna ?

Seraphin Zelafin : Nola ? Ez nauzu ezagutzen ? Enfin ! Seraphin Zelafin inspekturra ! Norbaitek ez nauelarik ezagutzen , ez dut suportatzen !

Felixi : Barkatu , jauna , barkatu !

Seraphin Zelafin : Zoazi beste pentsionerren bila ! Hemengo zuzendari nagusia arribatzekotan da eta nahi dut aintzinetik jakin zer kantu emanen dakozuen !

Felixi : Ez dakit prest diren eta ...

Seraphin Zelafin : Nahi dut kantua entzun ! Norbaitek ezetz erten daularik , ez dut suportatzen ! (*Felixi beste atera doa eta beste xaharrak deitzen ditu*)

Felixi : Etorri denak ! Jaun inspekturra-k kantua entzun nahi du ! *Xahar guziak sartzen dira*)

Seraphin Zelafin . Felixi . Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari

Terexa : (*Inspekturra ikustearekin , bere gana doa eta besarkatzen du*) Xemartin ! Ene Xemartin ! Azkenean itzuli zira ! Zonbat denbora eman duzun !

Seraphin Zelafin : Bainan ...Emazte hau erotua da ! Ni ez naiz Xemartin !

Terexa : Zergatik ukatzen duzu , maitea ?

Seraphin Zelafin : Ken nezazue kreatura hunen aztaparretarik !

Felixi: (*Eztiki hartzen du*) Ez Terexa ! Hau ez da Xemartin !

Terexa : Menturaz , egia duzu ! Xemartin ainitzez pollitago da ! (*Besteen gana itzultzen da , tristeki*)

Seraphin Zelafin : Eskandala ! Nahi dut kantua entzun ! (*Komoditateetako uraren azantza entzuten da eta Braulio agertzen*)

Seraphin Zelafin . Felixi . Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari . Braulio

Braulio : Zaute ene beha ! Nik ere nahi dut kantatu !

Denek : Puaah !

Seraphin Zelafin : (*Mokanesa ateraz*) Aah ! Trenpetxartuko naiz ! Are , erna ! Eman kantua ! Fite ! Fite !

Felixa : *(Hunek eginen du koralaren eremailea) Are has gaiten ! (Denek boza karrakatzen dute)*
Bat , bi !

Xaharrak : *(Kantuz . Inspekturra gero eta harrituagoa gaizki izanen da)*

Aitatxi eta amatxi lo dira buluz gorri

Amatxik dio aitatziri : zer duzu gauza hori !

Amatxik dio aitatziri zer duzu gauza hori

Amatxik dio aitatziri : xixaria du iduri !

Entzun duelarik xixari , amatxi-n trufa hori

Entzun duelarik xixari , kexu gorrian aitatziri !

Konprenitu duelarik ongi amatxi-n erran hori

Aitatxi-k erten dio gaixtoki :

Ah baia ! Zuk erakuts ipurdi ! La la la la

Seraphin Zelafin : *(Hatsa ezin hartuz) Aah ! ...Aah ! ...Eskandala ...Eskandala ...Ez nuen sekulan holako larrikeririk entzun ! (Xutitzen da eta nekez doa atera buruz , Felixa-k lagundurik) Banoa ! Banoa deabrutegi huntarik ! (Atean delarik kanpora so egiten du) Ah ! Hor zira ! Zu zira hemengo nagusi berria ! Bisita bakarrik eginen duzu ! Nik ezin dut gehiago ! C'est la fin Seraphin ! (Ateratzen da Felixirekin eta Arotzena sartzen , xuriz bezti)*

Geixan . Pedro . Tote . Kulian . Joana . Terexa . Mari . Braulio . Arotzena

Arotzena : *(Airos) Egun on , deneri ! Eman duzue ene kantua ? (Denak harrituak)*

Braulio : Bainan ...Zu zira hemengo nagusi berria ?

Arotzena : Eta bai , Braulio ! Hori zen ene segetua ! Hemengo kudeatzaileen joka molde tzarren berri ukana nuen eta ene begiz nahi nintuen ikusi ! Hortako dut ene burua pentsioner batentzat pasaraazi ! Bon ! Lehen lehenik , izena aldatuko dakogu erretreta etxe huni ! Hemendik goiti , deituko da «Hats Berri »! Eta behar zaituztet berehala abisatu : bihar , ez duzue telebixta so egiten ahalko !

Xaharrak : Zergatik ?

Arotzena : *(Mokanesa gorria eman ez lepoan) Denak abian baigira Baionako bestetara !*

Xaharrak : luffi ! *(Xaharrak lerroan emaiten dira elgarri gerritik lotuz eta ateratzen dira kantatuz) « C'est à Ba ba , c'est à yo yo , c'est à ne ne , c'est à Bayonne , Qu 'on se bibi , Qu' on se dodo , Qu'on se ne ne , Qu'on se, bidoonne» ...*

Oihala


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.